


# EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA

## GETXO

2008-2009 IKASTURTEA






**Emakumeentzako Jabekuntza Eskola** emakumeen arteko topaketa, gogoeta eta prestakuntza espazio gisa finkatzen ari da. Sare proiektu hau Getxo, Ondarroa, Basauri eta Ermuko Udalek bultzatu dute, eta aurten bostgarren ikasturtea hasiko du, emakumeen partaidetza politikoa eta soziala bultzatzeko asmoz.

### Ikasturtearen aurkezpena

Urriak 13, astelehena 19:00etan Villamonteko Kultur Etxean



### Elkartasuna eta trukea munduko emakumeekin lerroa

#### Munduko emakumeen literatura

(60 ordu)

Villamonteko Kultur Etxea

Asteartea, 10:00etatik 12:00etara

Urriaren 14tik maiatzaren 26ra

**Irakaslea:** Josune Muñoz

**Prezioa:** 15 euro

Erromoko Kultur Etxea

Asteazkena, 19:30etatik 21:30etara

Urriaren 15etik maiatzaren 27ra

**Irakaslea:** Marina Santa Coloma

**Prezioa:** 15 euro

Ekialde Erdiko, Asiako eta Afrikako egungo literatura ezagutu, irakurri eta aztertu behar dugu. Dote, sexu esplotazioa, fundamentalismoak, ablazioa, oinak bendatzea, erbestea edo inmigrazioa bezalako gaien aurrean sentitzen edo pentsatzen dutena zuzenean entzungo dugu. Elkartasun eta bizi-raupenerako bere estrategiak ezagutuko ditugu. Bere abestiak entzungo ditugu, bere dantza eta erritoak ikusiko ditugu eta munduko hainbat lekutako emakumeak gonbidatuko ditugu bere esperientziak eta jakituria gurekin partekatzeko.

## Topaketa kontatzen

(24 ordu)

Erromoko Kultur Etxea

Urtarrilaren 10etik martxoaren 28ra

Larunbata, 11:00etatik 13:00etara

Irakaslea: Josune Muñoz

Prezioa: 5 euro

Literaturaren bitartez inmigrazioa eta erbestea bezalako gaien inguruko esperientziak, iritziak, irakurketak eta gogoe-tak trukatzeko espazioa sortuko dugu. Herrialde ezberdine-tako emakumeen gaur egungo literatura irakurri eta aztertuko dugu, bidaiaren, egokitzapenaren eta mestizaiaren espe-rientziak ezagutzen lagunduko digutenak. Elkartasunerako eta bizirauteko haien estrategiak ezagutuko ditugu, batez ere krisialdietan.

Talde hau kultur arteko espazioa da. Trukaketa mesedetzeko helburuz, plazen %60 emakume etorkinentzat gorde da.

## Komiki femeninoan sartzen herri desberdinen bitartez

(24 ordu)

Villamonteko Kultur Etxea

Urriaren 17tik urtarrilaren 16ra

Ostirala, 19:00etatik 21:00etara

Irakaslea: Josune Muñoz

Prezioa: 5 euro

Fenomeno literario guztiekin gertatzen den bezala emaku-meok sortu zenetik egon gara komikiaren munduan. Hori gorabehera emakumeek genero honi dagokionez egin dituz-ten ekarpenak ez dira era egokian baloratu eta ikustezin bihurtarazi dituzte. Mintegi honen xedea komikiak egin dituzten emakumeen historia ezagutzera ematea da eta, horretarako, emakumeen komikien historiaren ibilbidea burutuko da, hala historikoa nola geografikoa, eta aldi bere-an begirada, historia eta marrazkitik abiatuko den analisisia egingo da.

## Feminismo lerroa

### Autodefentsa

(12 ordu)

Zabala Eskolak, Juan Bautista Zabala kalea, 3  
Azaroaren 21 eta 22an

Ostirala, 16,00etatik 20,00etara

Larunbata, 10,00etatik 14,00etara; 15,30etatik 19,30etara

**Irakaslea:** Maitena Monroy

Prezioa: 5 euro

### Jantzi erosoak eraman

Erasoak identifikatzen, eta indarkeriak (bere alderdi guztietan) dituen jatorria eta eraikuntza, eta norbanakoan eta taldean dituen ondorioak aztertzen ikasiko dugu. Eguneroko bizitzan gertatzen diren eraso-egoerak konpontzeko eta erantzuteko mekanismoak ikasiko ditugu.

Espazio bat sortu gura dugu, geure eskubide eta gaitasunetaz jabetzeko, konfiantza eta segurtasuna sustatzeko, indarkeriaren inguruko mitoak hautsiz eta emakumezkoen ahuldade fisikoari buruzko estereotipo zaharrak desmitifikatuz.

## Multikulturalismo eta feminismoa

(8 ordu)

Erromoko Kultur Etxea

Urtarrilaren 16 eta 17an

Ostirala, 16,00etatik 20,00etara

Larunbata, 10,00etatik 14,00etara

**Irakaslea:** Tere Maldonado

Prezioa: 5 euro

Aniztasun kulturalaren eta horri derrigorrez zor zaion begirunearen arloko eztabaidetan beti eztabaidaren erdian emakumeen zeregin soziala eta bere eskubideak agertzen dira. Ikastaroan eztabaida horiei ekiteko era guztietara hurbilduko gara, hots, feminismoaren eta multikulturalismoaren ikuspegietatik.

Ikastaroa eztabaidari era teorikoan hurbiltzeko bidea da eta aurrez gai feministei buruzko irakurketan eta/edo eztabaidetan (edo, horien ezean, gai politikoei buruzkoetan) urratsak emanda dituzten emakumeentzat da, egokia izango den bibliografia irakurtzeko aukera eta borondatea dutenak, alegia.

## Afrikako emakumeen errealitatearen ikuspegi feministak

(8 ordu)

Villamonteko Kultur Etxea

Azaroaren 28 eta 29an

Ostirala, 16,00etatik 20,00etara

Larunbata, 10,00etatik 14,00etara

**Irakaslea:** Remei Sipi

Prezioa: 5 euro

Beste zibilizazio batzuk begiratzen ditugunean batzuetan horietan bizi diren pertsonen irudi estereotipatuak jasotzen ditugu bueltan. Gure asmoa zuzenean emakume afrikarrak ezagutzea da, euren borroka eta asmoen historia, nola esku hartzen duten eta nolako estrategiak eraikitzen dituzten aurrera egin ahal izateko. Hori guztia gaur egun talde feminista afrikarrek mantentzen dituzten eztabaidetatik aztertuko da.

## Feminarrioak

Asteburuetakoa lau feminarrio egingo dira otsail eta maiatza artean. Ondoko gaiak aztertuko dira: emakumeen parte hartze politikoa, emakumeek gatazken ebazpenean duten zeregina, ekofeminismoa eta biolentzia sexistaren kasuetan zehapenak areagotzeari buruzko dilema.

Egitarauari buruzko informazioa urtarrilaren hasieran eman da eta inskripzioak orduan zabalduko dira.

**Irakaslea:** Dominique Saillard



### Negoiazteko trebezia emozionalak

(20 ordu)

Villamonteko Kultur Etxea

Urtarrilaren 30, 31 ; otsailaren 6, 7 eta 13an

Ostiralak, 17:30etatik 20:30etara

Larunbatak, 10:00etatik 14:00etara

**Irakaslea:** Norma Vázquez

Prezioa: 5 euro

**Saio guztietan parte hartzea nahi ta nahiezkoa da.**

**Puntualitatea eskatzen da**

Sentimenduak ezagutu eta aztertu ondoren lanetako bat gure bizitzako esparru guztietako eguneroko gatazkei aurre egiteko trebeziak eskuratzen ikastea da: pertsonala, lanekoa, soziala... Kontua negoziatorako trebezia emozional bartzuk garatzeko aukera emango diguten egoerak bizitzea eta pertsona adierazgarriekin negoziatzerakoan gure gune sendoak eta ahulak identifikatzea da.

### Ibilbide zinematografikoa harreman femeninoetan zehar

(18 ordu)

Villamonteko Kultur Etxea

Astearte, 18:30etatik 21:00etara

Urriaren 14tik abenduaren 16ra

**Irakaslea:** Norma Vázquez

Prezioa: 5 euro

Filmak ikusita gure gizarteetan “emakumea izateari” buruzko ulermen eta sinesmenetara hurbilduko gara, irudi eta sinbolo femeninoetan sakonduz; halaber, genero femininokoak izateak eragiten dituen sentimenduak aztertuko ditugu.

## Gu emakumeok: aldaketarako subjektua

(50 ordu)

Villamonteko Kultur Etxea

Urriaren 20tik maiatzaren 18ra

Astlehena, 17:00etatik 19:00etara

**Irakaslea:** Norma Vázquez

**Prezioa:** 15 euro

**Eskakizuna:** Aurreko ikasturteetan Nitasun femeninoa edo Munduko emakumeen literatura ikastaroetan parte hartu izana.

Emakumeen nortasunaren elementuetan eta emakumeek gizonekiko berdintasunean aurrera egiteko aurka egin behar diren oraingo erronketan sakonduko dugu.

Plano kolektiboko emakumeen jabeakentzari buruzko oinarriko proposamenak ezagutuko ditugu eta berau lortzeko bidean aurkituko ditugun zailtasunak ikusiko ditugu.

## Maitasuna ez da kontatu ziguten bezelakoa, ezta asmatu genuen bezelakoa ere

(12 ordu)

Villamonteko Kultur Etxea

Abenduaren 2, 3 eta 4ean

17:00etatik 19:00etara

**Irakasleak:** Marisa Rebolledo eta Nekane Elosu

**Prezioa:** 5 euro

Emakumeek eta gizonek bestelako ikaskuntzak eta esperientziak ditugu maitasuna denaren gainean. Asko dira maitasuna lehendabiziko tokian jartzen eta berau erabateko eta baldintzarik gabeko entrega egiten ikasi duten emakumeak, bere bizi-proiektua bigarren planoan gelditzen dela. Geure buruari galdetu behar diogu maitasunagatik zer “egiteko eta emateko” prest egongo ginatekeen.

Tailer honetan zehar maitasunezko mito ohikoenak argitu behar ditugu eta agindu arduragabeak argitara behar ditugu, maitasunaren ikusmolde berria eraikitzea eraiki daitekeela sinetsita, eta berau, hain zuzen ere, ez da kontatu ziguten edo asmatzen duguna bezelakoa.

### Jende aurrean hitz egiteko teknikak

Euskera (20 ordu)

Villamonteko Kultur Etxea

Ostirala, 18:00etatik 20:30etara

Urriaren 16tik abenduaren 18ra

**Irakaslea:** Edurne Mendizabal

Prezioa: 5 euro

Gaztelania (22 ordu)

Villamonteko Kultur Etxea

Asteartea, 17:00etatik 19:00ra

Urtarrilaren 13tik martxoaren 24ra

**Irakaslea:** Miriam Ocio

Prezioa: 5 euro

Ikastaroan zehar gure beldurrak eta komunikazioan esku hartzen duten elementuak zein diren identifikatu behar dugu, horrela, bere ezagutza eta entrenamendutik teknikak eskura ditzagun eta jendaurrean hitz egiteko zailtasunak gainditzeko edozein esparrutan.

Halaber, hizkuntzak errealitateaz dugun ikuspegiaren nola eragiten dugun ere aztertuko dugu, eta hizkuntza eta komunikazioaren erabilera ez sexista egiteko proposatzen diren alternatibak ikusiko ditugu.



## informazioa

telefonoa 944 660 130

berdintasuna@getxo.net

### Aurreinskripzioa:

Aurreinskripzioa egiten duten emakume guztien artean zozketatuko diren plaza mugatuak. Aurreinskripzioa egiteko beharrezkoa izango da inprimakia betetzea Hiritarren Arretarako Bulegoetan edo udal webaren bitartez ([www.getxo.net](http://www.getxo.net)).

Partaide bakoitzak, gehienez ere, bi ikastarotarako aurreinskripzioa egingo du, eta lehentasun-ordena zehaztu beharko du, izan ere, plaza nahikoarik egon ezean, bakarra bakarrik egin ahal izango du (8 orduko ikastaroak izan ezik, hauek beste ikastaro batekin bateragarriak izango baitira).

**Bakarrik onartuko dira Getxon erroldatuta dauden emakumeak, plaza libreak izan ezik.**

Oinarrizko Errenta jasotzen dutenentzat ikastaro bakoitzaren prezioa 5 eurokoa izango da.

### Aurreinskripzio-aldia:

**2008ko irailaren 15etik 19ra**

Plazak irailaren 22an goizeko 10etan zozketatuko ditugu Martikoena kaleko 16.ean. Eskutitz bana igorriko diegu onartutako guztiei, halaber, onartutakoen zerrendak ipiniko ditugu Erromoko eta Villamonteko Kultur Etxeetan, eta internet bidez ere begiratu ahal izango dira Getxoko web orrian ([www.getxo.net](http://www.getxo.net)).



## Matrikula:

Behin betiko matrikula formalizatzeko, beharrezkoa izango da onarpen gutuna aurkeztea eta HAG edo HABetan ordainketa egitea.

## Matrikula-aldia:

2008ko irailaren 30etik urriaren 8ra .

## Aurreinskripzioa eta matrikula egiteko tokia:

**Hiritarren Arretarako Bulegoak, ordutegia:** 8etatik 14etara

**Algorta:** Juan Bautista Zabala kalea, 6  
Foru kalea, 1

**Andra Mari:** Benturillena kalea, 17

**Erromo:** Aurrezki Kutxa kalea, 3

## Hiritarren Arretarako Gunea:

Ordutegia: 14etatik 20etara.

Makaletako Etorbidea, 56

## HAURTZAINDEGI ZERBITZUA EGONGO DA

EHUK aukera libreko kredituak emango dizkiete ikastaroetan parte hartzen duten unibertsitate ikasleei.

